

Lilura etsigarriak, etsimendu liluragarriak



INMA ERREA
IDAZLEA
@inmaerrea

PESen *Langaia*k bildumako hirugarren zerbakia (1983ko abuztuko) agertu berri zait etxean. Izenburua: *Debate sobre la conciencia vasca en Navarra. Un aporte sociológico*. Edukiak (Nafarroan barna eraturako lau mahaitan egindako debataren emaitza) gaur-gaurkoa dirudi parte batzuetan.

Atzera begirako *déjà vu* bat? Sorginzu-
loa? Betiereko itzulera?

Errepikapen etengabe baten sentipena areagotzen du bildumako aurreko izenburuen eta ondorengoaren aipuak. Lehen zerbakia: *Dos siglos controvertidos en la historia de Navarra. De las guerras carlistas al Amejoramiento Foral*. Bigarrena: *Aportaciones de mujeres a su propia historia*. Eta laugarrena –hurren argitaratuko zena–: *La educación sexual en la escuela*.

Nafarroan ametsa sortu zen behin: maiz eternala dirudien sistema politikoa aldatzeko ametsa. Amets horrek hainbatetan egin zuen huts (Otano kasua, 2007ko *agostazo* hura...), eta beste hainbestetan berpiztu.

Eta irauteko behar adina indar hartu zuen 2015ean.

LASTER, BEREHALA BAITATOR MAIATZA, IKUSI AHALKO DUGU NAFARROAN 2015EAN AMETS BATETIK SORTUTAKO PROIEKTUA NORAINO IRITSI DEN, ZENBATERAINOKO INDARRA HARTU DUEN, EDO ZENBAT IZAN DUEN LILURATIK

Gorpuztu zen, hezurmamitu, eta lilura sortu zuen, ilusioa, poza, itzaropena.

Orain, gauzak aldatzeko izan den saialdi luzeenean bizi gara Nafarroan.

Halako saialdi batek, ametsak berak emandako bultzadaz gain, beste osagai batzuk behar ditu: enantzua eta lana –nekeza, askotan–; malgutasuna, norabidea zuzentzeko, behar den orotan; tre-bezia, jakiteko noiz, eta zertan, eman behar den amore (eta zertan, eta noiz,

ez); artea, ametsen eskutik datozen lilurei nahasmenduak sortzen ez uzteko; arintasun eta umore pitin bat (eta adorea, dosi handietan). Eta, abenturetako pelikuletan bezala, ahalmen handia, klase orotako tranpak saihesteko.

Ezen, oraingoan ere, arazo batzuk agertu dira –harrigarriki bateraturik agertu ere–. Eta, berriro ere, arazo horiek, aurrekoetan bezala, ez dira ez funtsezkoak, ez errotikoak. Haien kausak ilunak eta konprenigaitzak dira, eta ondorioa, ordea, argia eta ulerterraza: oztopo bihurtzea hartutako bideari segida emateko.

Amesteak bultzada ematen du gauzak egiteko, baina aldi berean ametsak badute, beti, zerbait, edo asko, liluratik.

Lastera, berehala baitator maiatza, ikusi ahalko dugu Nafarroan 2015ean amets batetik sortutako proiektua noraino iritsi den, zenbaterainoko indarra hartu duen, edo zenbat izan duen liluratik.

Nafarroan badago arriskua lilura etsimendu bihurtzeko. Haatik, hori baino okerragoa izanen litzateke etsimenduak liluratuta gelditzea, pentsatzea ez duela merezi berriro amestea. ●

**Oinarrietatik haztea,
ona izatea eta hoberena izatea
gauza bera ez direla ikastea da.**

Aukeratu hezkuntza eredu
etorkizunean izatea nahi duzun
pertsonean pentsatuta.

Matrikulazio aldia: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra arte.



**KRISTAU
ESKOLA**

OINARRIAK JARRIZ,
EZAGUTZAK EZARRIZ.

Aukera ezazu zure zentroa
kristaueskola.eus-en